



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko apirilaren 19a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak ezetsi egin ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituenak. Osoko Bilkurak aintzat hartua (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beraingo Udalarekin, Beraingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berritzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berrikus eta alda ditzan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan eskolatutako ikasleak gutxiengo sozialki ahulekoak ote diren zehazteko irizpideak eta puntuazioa. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako kideak hautatzea (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen ezetsea Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, aipaturiko proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeari.

Iruñean, 2018ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzekoa.

HITZAURREA

Emakumeen eta adingabeen sexu-esplotaziorako trafikoa giza eskubideen urratze handienetako bat da; halaber, esklabotza modernoaren modu bat eta emakumeen kontrako indarkeriaren alderdi mikatzenetako bat da.

Harekin errotik amaitzeko, ikuspegi orokor batetik begiratu behar zaio, hura muturreko indarkeriatzat joz, zeinak ageriko lotura baitu prostituzioarekin; izan ere, prostituzioa da emakumeen trafikoaren helburu nagusia.

Hori dela eta, prostituzioa delituzko jarduera bat da, emakumeak salerosketan erabiltzen dituen, haien duintasuna urratuz eta giza eskubideak kinka larrian jarriz.

Artikulu bakarra. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 3. artikulua 2. apartatuaren e) letrari testu berria ematen zaio. Emakumeen kontrako "indarkeriaren definizioa eta motak.

"e) Prostituzioa edo/eta sexu-esplotazioa: Beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke edukitzea. Finantza-onurak edo bestelakoak lortzea beste baten prostituzioaren esplotazioaren bidez (horren barnean, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea), baita haren adostasunarekin ere".

Bi. 18. artikulua aldatzea. Hedabideen esparruko neurriak.

"3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek ez dute publizitate instituzionaleko espaziorik txertatuko prostituzio-iragarkiak jasotzen dituzten titulartasun pribatuko hedabideetan eta/edo emakumeen irudiarekin lotutako eduki iraingarriak ateratzen dituzten eta, horrenbestez, emakumeen duintasunaren aurka egin, haiek arinkeriaz tratatu edo haien aurkako indarkeriara bultzatzen duten hedabideetan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek ez dute onartuko diru-laguntzetarako eskaerarik ez eta zuzeneko diru-laguntzarik ere, horien hartzaile izatekoak diren titulartasun pribatuko hedabideek prostituzio-iragarkiak jaso eta/edo emakumeen irudiarekin lotutako eduki iraingarriak argitaratzen dituztenean eta, horrenbestez, emakumeen duintasunaren aurka egin, haiek arinkeriaz tratatu edo haien aurkako indarkeriara bultzatzen dutenean".

Azken xedapenetan lehena. Araugintzarako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak lege-aldaketa honen garapen eta aplikaziorako beharrezkoak diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, aurreikusten dituen ondorioekin.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege bat onetsi zuen, zeinaren bidez aldatzen baitira apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea

HITZAURREA

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna printzipio juridiko, etiko eta politikoa da, eta hala aitortu izan da giza eskubideei buruzko estatuko, nazioarteko eta Europako zenbait testutan.

Estatuko araudiaren oinarri gisa, aipagarriak dira Espainiako Konstituzioaren 14. eta 9.2 artikulua, zeinek aldarrikatzen baitituzte, hurrenez hurren, berdintasunerako eskubidea eta sexua dela-eta baztertua ez izatekoa, eta botere publikoen betebeharra, beharrezkoak diren baldintzak sustatzekoa, banakakoaren eta berau sartzen den taldeen berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen. Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 28.4 artikuluan hau ezartzen da: "Informazio- eta komunikabide-teknologiaren esparruan, oso-osoan edo zati batean diru publikoarekin ordaindutako proiektuetan bermatuko da hizkera eta edukia sexistak ez izatea".

Nazioartean, nabarmendu behar da Emakumearen aurkako Bereizkeria-mota guztiak ezabatzeke Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1979an onetsia eta Espainiak 1983an berretsia.

Europar Batasuneko araudiari dagokionez, Europar Batasunaren Itunaren 3.3 artikuluan ezartzen da Batasunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duela, eta berdintasunerako eskubidea aitortzen da, halaber, Europar

Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 23. artikuluan. Artikulu horietan oinarrituta, Europar Batasunaren arau ugari garatu dira.

Hedabideak, beren eduki, programa edo informazioen bidez, sarritan erortzen dira sexuagatiko bereizkeria-mota desberdinetan, eta bereizkeria horrek iraunarazten laguntzen dio egiturazkoagoa eta unibertsalagoa den gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desorekari. Bereizkeriaren errealitate hori, emakumezkoen irudi estereotipatu, negatibo eta iraingarrien bidez, bereziki agerikoa gertatzen da sexu-zerbitzuen publizitatea egiten duten hedabideetan, publizitate hori egiten delarik prostituten deskribapen fisikoen bitartez, haien aurkezpena egiten duten argazkiak erantsiz eta haien izendatzeko adjektiboak erabiliz edo antzeko edukiak baliatuz.

2007an, Kongresuak eta Senatuak eraturako Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzorde Mistoak txosten bat prestatu zuen prostituzioak estatu-mailan zuen egoerari buruz, eta bertan esaten da prostituzioak oso harreman estua duela emakumeen trafikoarekin eta salerosketarekin, emakumeen eta neskatuen trafiko eta salerosketa areagotzen ari dela Europako eremuan eta, oro har, mendebaldeko herrialdeetan, eta emakumeen eta neskatuen trafiko, sexu-esplotaziora eta prostituziora bideratua, negozio oparoa dela mundu-mailan. Halaber, txostenean esaten da prentsak diru-sarrera handiak lortzen dituela prostituzioaren publizitatearen bidez, eta defendatzen du inolako tolerantziarik ez izatea prostituzioarekiko, jotzen baitu gehienetan ez dela borondatez egiten eta zuzeneko lotura duela baliabideak eskuratzeko aukera gutxien duten emakume eta neskatuen esplotazioarekin.

Egoera horren aurrean, botere publikoen ardua da beren eskumenak baliatu eta esku hartzea. Hori dela eta, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa honen helburua da finantzaketa publikoarekin ez laguntzea sexua dela-eta baztertzailetzat jotzen diren jarduketak hedabideetan sustatzen; zehazki, sexu-zerbitzuen publizitatea egiten dutenetan. Izan ere, horiek, arestian aipatu bezala, oinarrizko eskubideen aurkako erasotzat jotzen dira.

1. artikulua. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa.

Apartatu berri bat, hirugarrena, gehitzen zaio Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 19. artikuluari. Hona edukia:

“3. Ez zaie ez Nafarroako administrazio publikoen ez eta sektore publikoko enpresen inongo diru-laguntzarik emanen sexu-harremanetarako kontaktuen iragarkiak edo prostituzio-iragarkiak jasotzen dituzten hedabideei, eta halako jardueratzat hartuko da beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke edukitzea”.

2. artikulua. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikulua 3. apartatua aldatzen da, honako eduki honekin:

“3. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artiku-

luaren 5. eta 6. apartatuetan ezarritako debekuak dituzten elkarteei ezin zaie inola ere aitortu foru lege honetan araututako diru-laguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izaera. Era berean, elkarteei ezin izanen zaie onuradun edo entitate laguntzaile izaera aitortu, baldin eta erregistroan inskribatzeko administrazio prozedura etenik badute, lege-hauste penala egin izanaren arazoizko zantzuak agertzeagatik, aipatutako lege organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoaren aplikazioz, harik eta kasuko erregistroan inskribatzea ahalbidetzen dien ebazpen judizial irmoa ematen den arte.

Halaber, ezin izanen da diru-laguntzen onuradun izan bere edukien artean sexu-harremanetarako kontaktuen iragarkiak edo prostituzio-iragarkiak jasotzen dituen inongo hedabide, eta halako jardueratzat hartuko da beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke edukitzea”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2018ko apirilaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen kanabis-erabiltzaileak arautzen dituen lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak

aurkeztu zuten, eta 2018ko otsailaren 23ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2018ko apirilaren 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko.

– Jarduketa-plan eraginkor bat presta dezan detektatutako edo salatutako ziberbullying kasue-

tarako, zeinean jasoko baita zer jarduketa-protokolo bete beharko duten polizia-kidegoek, ikastetxeek, inplikaturakoen gurasoek edo tutoreek, osasun- eta gizarte-zerbitzuek eta egoki irizitako eragile guztiek.

– Nafarroan ziberjazarpenaren analisia eta jarraipena egiteko lantalde bat eratu dezan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zerbitzuak ematen dituzten enprekin batera lan egiteko. Lantalde horretan parte hartuko dute, guztien ere, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, Foruzaingoak, Hezkuntza Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak.

– Ziberbullyingaren aurkako publizitate-kanpaina positibo bat abiaraz dezan, gehienbat sare sozialak edo Nafarroako Foru Komunitateko gazteak ibiltzen diren espazioak erabilita”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beriaingo Udalarekin, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berritzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2018ko apirilaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beriaingo Udalarekin, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berritzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da:

1. Mozio honetan proposatzen den diru-laguntza –Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko

berokuntza eta ur beroko sistema berritzekoa– Beriaingo Udalarekiko kofinantzaketa-akordio baten bitartez ezarri behar baldin bada, urgentziaz egin dadin akordio hori, obrak 2018ko udan zehar egin ahal izan daitezen betiere.

2. Kofinantzaketa-akordio hori egitea ezinbestekoa ez baldin bada, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta ur beroko sistema berritzeko aurreikusitako gastu osoa finantzatu dadin.

3. 2018ko aurrekontuen kargura ezar dadin arestian aipatutako gastuaren zenbatekoa ordaintzeko diru-laguntza”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berrikus eta alda ditzan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan eskolatutako ikasleak gutxiengo sozialki ahulekoak ote diren zehazteko irizpideak eta puntuazioa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2018ko apirilaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berrikus eta alda ditzan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan eskolatutako ikasleak gutxiengo sozialki ahulekoak ote diren zehazteko irizpideak eta puntuazioa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Berrikus eta alda ditzan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatu

itu itunduetan eskolatutako ikasleak gutxiengo sozialki ahulekoak ote diren zehazteko irizpideak eta puntuazioa, horien aplikazioan sortzen diren desdoitzeak zuzentzeko, eta ikasleen eta haien hezkuntza premien errealitate sozio-ekonomikoaren araberrako diagnostiko bat bermatzeko.

2. Ikastetxe publikoek eta pribatu itunduek gutxiengo sozialki ahuleko ikasleen balorazioak kontrolatu eta kontrastatzeko kanpo-prozedura orokor bat ezar dezan, erroldak baliozkotuko dituen.

3. Baliabide gehigarriak bidera ditzan ikastetxeetara (ratio-murrizketa, giza baliabideak, materialetarako eta jarduera berezi eta eskolaz kanpo-koetarako dirua, eta abar), baldin eta haietan gutxiengo sozialki ahuleko ikasleen portzentajea % 25 baino handiagoa bada edo salbuespeneko

egoerak bizi badituzte, ikasle horiek dituzten abia-
buruko desberdintasunak konpentsatzeko xedez.

Aurreko paragrafoan jasotako baliabide gehi-
garriak berehala aktibatuko dira eta, beranduenez,
2018-2019 ikasturte hasierarako egonen dira
abian.

Halaber, kontuan izanda zenbait ikastetxe
publikoetan ikasturtean zehar aparteko eskolatz-

aldian izena ematen duten edo berandu sartzen
diren ikasleen kopuru handia dagoela, ikasgelak
bikoiztu eta, kasua bada, aipatu ikastetxeetako
giza baliabideak eta baliabide materialak areago-
tuko dira inguruabar horiek gertatzen direnean”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako kideak hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko apirilaren 12an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak hautatu beharreko ‘Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP’ izeneko sozietateko administrazio kontseilurako kide gisa pertsona hauek proposatzea:

- María Carmen Segura Moreno andrea.

- Koldo Amezketa Díaz jauna.

- Javier Onieva Larrea jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin tzea”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

